



Andoaino
Udala

Gobernuko Ildo Orokorrak.

Líneas generales de gobierno.

1.- Oinarri Orokorrak.

1.1- Pertsonen beharretan oinarrituko den Andoain.

Krisi ekonomikoaren ondorioz, gero eta gehiago dira babes neurriak behar dituzten andoaindarrak; betidanik gurean bizi izan diren herritarrak, baita azken urteotan gurekin bizitzera kanpotik etorritakoak ere. Hauen oinarritzko beharrak ziurtatuko dituen babes neurrietan murrizketarik gabeko herria izango da Andoain. Andoainen langabezian dauden andoaindarrak izango dira gure lehen tasuna. Enplegu sailetik sektore honi begirako indarrak biderkatu nahi ditugu.

1.2.- Justizia soziala eta solidaritatearen sustapena.

Andoain anitza, aberatsa eta integratzaile bat irudikatzen dugu, eta horren alde lan egingo dugu. Tamalez, desoreka ekonomikoak bazterketa soziala eragiteko arriskua sortzen du sarritan. Udal politikak justizia soziala sustatzeari begira landu behar dira. Baita herritarren arteko elkartzaren sareak bideratzeari begira ere.

1.3.- Bakea, bizikidetzeta eta memoria.

Andoainek modu gogor eta bortitzean bizi izan du biolentziaren eragina. Gatazka luze honek biktimak ugari utzi ditu gure herrian; batzuk ezagunak eta onartuak izan dira, beste batzuk, aldiz, ez. Garrantzitsua iruditzen zaigu, ordea, gertatutako guzti-guztiaren inguruko gogoetatik abiatzea, egiazkoa eta iraunkorra izango den normalizazio egoera lortzeko.

Andoainen, alderdi guztien artean eta parte hartu nahi duten herritar zein eragileen artean, honetaz guztiaz lasaitasunez hitz egingo duen batzorde bat sortzearen beharra ikusten dugu. Batzorde honen xedea, hain zuzen, bizikidetzeta oinarri izango duen, gure memoria propioa aitortuko duen eta bakean biziko den herria erdiestea izango da.

1.4.- Euskal Herriaren erabakitze eskubidea.

Euskal Herriak bere etorkizuna modu demokratikoan erabakitze eskubidea duela argi dugu. Helburu horrekin, herritarren

1.- Bases generales.

2.1- Un Andoain basado en las necesidades de las personas.

A consecuencia de la crisis económica, cada vez son más las personas que necesitan medidas de protección; son personas que siempre han vivido en nuestro municipio, así como personas que han venido en los últimos años. Andoain es y será un pueblo sin recortes en las medidas de protección social. Las personas desempleadas serán una prioridad para este Gobierno. Multiplicaremos nuestros esfuerzos hacia este sector, desde todos los departamentos y desde el de Empleo en particular.

2.2.- Justicia social y solidaridad.

Andoain es un pueblo plural e integrador. Por desgracia, los desequilibrios en materia económica generan situaciones de exclusión social. La política municipal irá encaminada a luchar contra la desigualdad y generar más justicia social. En esa dirección reforzaremos las redes de solidaridad vecinal.

2.3.- Paz, convivencia y memoria.

Andoain ha vivido de forma dura e intensa la influencia de la violencia. Este conflicto tan prolongado ha generado numerosas víctimas en nuestro municipio; algunas de ellas son conocidas y reconocidas; otras, sin embargo, no. Nos parece imprescindible partir de la reflexión de todo lo acontecido, para poder obtener así una situación de normalidad verdadera y duradera.

Vemos la necesidad de crear una comisión entre todos los partidos y vecinos-as que quieran participar para debatir con tranquilidad sobre todo ello. El objetivo de esta comisión será alcanzar un pueblo que tenga como base la convivencia, que reconozca nuestra memoria y que viva en paz.

2.4.- Derecho a decidir de Euskal Herria.

Tenemos claro que Euskal Herria tiene derecho a decidir democráticamente su futuro. Con esta premisa, apoyaremos a los movimientos populares



Andoaino Udala

mugimenduetatik sortzen diren ekimenekin bat egingo dugu, hala nola, Andoaino Udala erakunde aktiboa bilakatu nahi dugu eskubide demokratiko horren defentsan.

1.5- Euskararen normalizazioa.

Euskararen erabateko normalizazioa eman dadin ahalegin guztiak egin behar ditugu; kalean eraginez eta Udalean bertan eredu emanez. Ekintza eta egitasmo konkretuen bitartez, gure herrian euskararen egoera hobetu dadin bilatuko dugu, era berean, euskararen egoera orokorra ondu dadin lagunduz. Halaber, udal gobernuaren lan hizkuntza euskara izango da, eta Udalaren lan hizkuntza euskara izan dadin ere lan egingo dugu.

1.6- Andoaino Udala: gardena eta garbia.

Andoaino Udala, ustelkeria arriskutik kanpo egoteko neurri prebentiboak izango ditu. Kargu publikoen gastuak %100 publiko izateko bideak proposatuko ditugu, baita "praktika egokien gida"-ren onarpena ere. Eguneroko funtzionamenduan modu tranbertsalean garatzea izango da gure asmoa.

2.- Epe laburrean ditugun lehentasunak.

2.1. Andoaino Udalaren egoera ekonomikoa.

Jakina da Andoaino Udalak egoera ekonomiko ahula bizi duela. Azken urteotan egoera hobetze aldera neurri batzuk hartu badira ere, eta egoera apur batean samurtzea lortu den arren, erabaki berriak eta zabalak behar dira Andoaino Udala blokeo egoera batean erori ez dadin. Hauek dira epe laburrean adostasun zabalak behar dituzten gaiak:

- **Ur hoditerian konponketak:** une honetan Eusko Jaurlaritzak emandako epetik kanpo gaude hainbat konponketa egiteko orduan. Udal gobernutik soluzio bakarra ikusten diogu: uraren kudeaketa osoa Gipuzkoako Ur kontsorzioari esleitzea. Nolanahi ere, prest gaude honek suposatzen dituen erabaki guztien inguruan

que trabajen con este objetivo, y trabajaremos para que el Ayuntamiento de Andoain sea una institución activa en la defensa de este derecho.

2.5- Normalización del Euskera.

Tenemos que realizar todos los esfuerzos posibles para obtener la total normalización del euskera; activando la calle y dando ejemplo en el ayuntamiento. Mediante actos y planes concretos, buscaremos mejorar la situación del euskera en Andoain, para así poder mejorar la situación general de nuestra lengua. A su vez, remarcamos que el idioma de trabajo del equipo de gobierno será el euskera y trabajaremos para que sea también la lengua del ayuntamiento.

2.6- Andoaino Udala: libre de corrupción y transparente.

El ayuntamiento de Andoain tomará medidas preventivas para estar lejos del peligro de la corrupción. Propondremos medios para hacer público los gastos de los cargos públicos, así como la aprobación de la "guía de buenas prácticas". Nuestra intención será trabajar en ese ámbito de manera transversal.

2.- Prioridades a corto plazo.

2.1. Situación económica del ayuntamiento.

Es conocido que la situación económica del ayuntamiento es débil. A pesar de que en los últimos años se han tomado medidas para mejorar esa situación, y se ha conseguido suavizar la situación, se necesitan nuevas y amplias decisiones para que el ayuntamiento de Andoain no decaiga en una situación de bloqueo. Estos son los ámbitos que necesitan amplios consensos a corto plazo:

- **Arreglos en las tuberías de aguas:** en estos momentos estamos fuera de los plazos que nos marca el Gobierno Vasco para realizar ciertos arreglos. Desde el equipo de gobierno vemos una única solución: ceder la gestión integral del agua al Consorcio de Aguas de Guipúzcoa. No obstante, estamos dispuestos a debatir y consensuar todas



Andoaino Udala

eztabaidatu eta adostasunak bilatzeko.

- **2016. urtearen aurrekontu proiektuaren elaborazio bateratua eta onarpena.** Helburua: 2015eko abenduan onartzea 2016.urtea modu egokian abiatzeko.
- **Tasak eta zergak:** irailean alderdien arteko negoziazio eta elkarlanari ekin. Lau urteko proposamen progresiboa lortzea izango da helburua, baina bada 2016koa adostu.
- **Gastu korrontea murrizteko plan bat adosteko prozesua abiatzea.** Alderdi guztien parte hartzea eta adostasunarekin.

2.2. Enpleguaren sustapena.

Beterri Garapen Integralerako Agentziaren behin betiko osaketan jarri behar gara buru-belarri, Andoainen horretarako dinamika berrartuz.

2.3. Hondakinen kudeaketa.

Hondakinen mahaian adostutako bideari jarraipena emango diogu.

- 2016rako %60aren birziklatze maila lortzea.
- 5. edukiontzia ezarpena
- Auzo konpostaren sustapena.
- Sortzaile bereziei bilketa berezia ezarri.
- Enbaseen erabileraren murrizketa kanpainak
- Errefusaren murrizketa.

3.- Agintaldian zehar

OGASUNA ETA EKONOMIA

(Aurreko puntuan azaltzen da)

GIZARTE ZERBITZUAK

Arloaren lan banaketa eraginkorra: behar berriak detektatu eta hauei erantzuna emateko azterketa burutu nahi dugu.

Sektoreko Mahaiaren sorrera: Asko dira ongizatearen eremuan lanean diharduten eragileak. Bakoitzak lan eremu ezberdin bat jorratzen duen arren, guztiek helburu amankomun bat dute: andoaindarren ongizatearen alde lan egitea. Bada,

las medidas que esto supone.

- **Elaboración y aprobación de los presupuestos de 2016.** Objetivo: aprobar los presupuestos en diciembre para poder comenzar de un modo adecuado el próximo ejercicio.
- **Tasas e impuestos:** en septiembre comenzaremos con la negociación y puesta en común con los demás partidos. El objetivo será conseguir un acuerdo a cuatro años, pero de no ser posible, para el año 2016.
- **Comenzar un proceso para acordar un plan de reducción del gasto corriente.** Con la participación y consenso de todos los partidos.

2.2. Enpleguaren sustapena.

Debemos crear definitivamente la Agencia de Desarrollo Integral Beterri, retomando en Andoain la dinámica para ello.

2.3 Hondakinen kudeaketa.

Daremos continuidad a lo acordado en la Mesa de Residuos:

- Obtener al 60% de reciclaje para 2016.
- Puesta en marcha del 5º contenedor.
- Profundizar en el compostaje.
- Recogida directa a los generadores especiales.
- Campañas para la reutilización y reducción.
- Reducir la fracción resto.

3.- Durante la legislatura

HACIENDA Y ECONOMÍA

(Se indica en el punto anterior)

SERVICIOS SOCIALES

Reparto efectivo del trabajo del área: identificar las nuevas necesidades y realizar un análisis para darles respuesta.

Creación de la Mesa del Sector: son muchos los colectivos que trabajan en el área del bienestar. A pesar de que cada uno trabaja en su ámbito, todos tienen un objetivo común: trabajar en pro del bienestar de los y las andoaindarras. Así pues, con



Andoingo Udala

eragile horien guztien lan-ildoak partekatzeko asmoz, Gizarte Zerbitzuen sektoreko mahaia eratuko dugu.

BERDINTASUNA

Emakume eta gizonen aukera berdintasunean sinesten dugu, eta beraz, antolatzen diren dinamika, ekimen eta egitasmo guztiak perspektiba honen oinarritik landu nahi ditugu.

Duela gutxi onartu zuen Udalak II. Berdintasun Plana, eta orain artean alor honetan lana egin den arren, uste dugu Andoingo Udalak baduela gabezi nabarmen bat: egin behar honetaz arduratuko den batzorde baten osaketa.

Beraz, gure asmoa egitura finko baten sorrera izango da, bertatik abiatzen diren dinamikak koordinatzeko teknikari baten kontratazioarekin batera.

KULTURA

Andoain herri bizia da, anitza, parte-hartzailea. Balore positibo asko ditu gure herriak eta uste dugu horiek guztiak kulturaren bitartez loratu eta erakustarazi daitezkeela. Bertako kultura udal instalazioetan, baina baita kalean ikusi nahi dugu, eta horregatik, zenbait kultur egitasmo gure herriko gune ezberdinetan antolatzea izango da asmoa. Era berean, gure herriko kultur talde guztien arteko koordinazioa egotea ezinbestekoa ikusten dugu.

2015 urte honetan, "Andoaindarrak 400" egitasmoaren antolaketarekin segiko dugu, kultur aniztasuna lau haizetara zabaltzen. Baina aniztasuna etorkizunean lantzen jarraitu beharreko ildoak dela deritzogu.

Arlo honetan badugu kezka berezia sorrarazten digun auzia: Udal Liburutegia. Bistan da egungo eraikinak eta espazioak ez dituela andoaindarraren beharrak asetzen, eta denboran gehiegi berandutu gabe, behar-beharrezkoa da honen inguruan eztabaida ematea. Udal liburutegi eta kultur espazio anitzeko proiektu berri bat eratu behar dugu, kokapen eta funtzionamendu berriarekin.

HEZKUNTZA

Lau ikastetxe ditugu herrian, bakoitza bere hezkuntza proiektu eta egitasmoekin. Udaleko zenbait departamentuk elkarlan egitasmoak eramaten

el objetivo de poner en común las líneas de trabajo, crearemos la Mesa de Servicios Sociales.

IGUALDAD

Creemos en la igualdad entre hombres y mujeres, y por ello, todas las dinámicas y proyectos se organizarán a partir de esta perspectiva.

Hace poco el ayuntamiento aprobó el IIº Plan de Igualdad, y a pesar de que se ha comenzado a trabajar en esta área, creemos que Andoain tiene una carencia muy evidente: la creación del área que se ocupará de todo ello.

Así pues, nuestra apuesta será la creación de esta área y la contratación de un/una técnico que coordine todas las tareas.

CULTURA

Andoain es un municipio vivo, diverso, participativo. Nuestro municipio tiene valores muy positivos y creemos que se pueden aflorar y exponer mediante la cultura. Queremos ver nuestra cultura en las instalaciones municipales, pero también en las calles, y por ello, la intención será organizar actos culturales en lugares diversos de la localidad. Así mismo, vemos imprescindible la continua coordinación entre las asociaciones culturales.

Durante 2015 continuaremos con la organización del proyecto "Andoaindarrak 400", extendiendo la diversidad cultural por todos lados. Pero creemos que la diversidad cultural es un área que debemos seguir trabajando también en el futuro.

En esta área tenemos una problemática que nos genera gran preocupación: la Biblioteca municipal. Está claro que el espacio que ocupa hoy en día la biblioteca no da respuesta a las necesidades de los y las andoaindarras, y antes de que sea tarde, es necesario un debate sobre ello. Debemos de crear un nuevo proyecto para la biblioteca y un espacio multicultural, con un nuevo espacio y funcionamiento.

EDUCACIÓN

Tenemos cuatro colegios en el pueblo, cada uno con su proyecto educativo y sus dinámicas. Desde hace tiempo, varios departamentos del



Andoaingo Udala

dituzten eurekin aspaldidanik. Ordea, herriaren garapenari begira, badira derrigorrez amankomunean jarri beharreko hainbat eta hainbat dinamika. Horretarako, Hezkuntza Mahaia martxan jartzea proposatzen dugu, Udaleko zein ikastetxeetako ordezkariak osatuta egongo dena, eta aurrera eramane beharreko egitasmoen arduratuko dena.

ANIZTASUNA

Jatorri ezberdin askotako lagunak bizi dira gurean, denboraren poderioz andoaindar bilakatu direnak. Nolanahi ere, integrazio ikuspegitik eta bizikidetzari begira, garrantzitsua deritzogu etorri berri direnei harrera egitea. Horretarako Harrera protokoloa jarriko dugu martxan. Gainera, aniztasunetik asko aberastu dezakegu gure herria; kultura, hain zuzen, aitzakia ezin hobea izan daiteke horretarako.

SUSTAPEN EKONOMIKOA

Beterriko Garapen Agentzia. Berrikuntzarako espazioak sortu eta eskualdeko sozio-ekonomia sustatzeko proiektuak bideratu

- Krisia gehien kolpatu dituen pertsonentzako proiektu bereziak
- Ekintzailetasuna
 - Interkooperazioak: enpresak, formazio zentruak, sektore ezberdinak
 - Zerbitzuak enpresei
 - Aholkularitza

TURISMOA

Turismo eredu arduratsua sustatzea helburu izango dugu momentu oro. Leitzaran bailarak eskaintzen duen potentzialaz gain, Otietako "Bisitarien Etxea" informazio gune gisa atontzea da asmoa, bizikleten alokairua, komonak... eskainiz.

Halaber, bidegorri sarean sakontzen jarraitzea eta karabana-autokarabanentzako guneak txukunduko ditugu.

GAZTERIA

Udalak osatu berri duen Gazte Planaren garapena

ayuntamiento llevan a cabo líneas de trabajo conjuntos con todos ellos. Sin embargo, en cuanto al desarrollo del municipio, hay varios temas que se deben de poner en común. Para ello, proponemos poner en marcha la Mesa de Educación, que estará compuesta por miembros de los colegios y el ayuntamiento, y que se ocupará de llevar a cabo dichos proyectos.

DIVERSIDAD

En Andoaín vive gente de varias procedencias, que se han convertido en andoaindarras con el paso del tiempo. Aún así, desde la perspectiva de la integración y mirando hacia la convivencia, creemos que es importante recibirles adecuadamente. Para ello, pondremos en marcha el Protocolo de Recibimiento. Además, creemos que podemos enriquecer mucho nuestra localidad desde la diversidad; la cultura, concretamente, puede ser un adecuado pretexto para ello.

PROMOCIÓN ECONÓMICA

La Agencia de Desarrollo Beterri. Crear espacios de innovación y canalizar proyectos para reavivar la socioeconomía de la comarca.

- Proyectos especiales para las personas que más han sufrido las consecuencias de la crisis.
- Emprendizaje
 - Intercooperación: empresas, centros de formación, diferentes sectores.
 - Servicios a empresas.
 - Asesoramiento.

TURISMO

En todo momento tendremos como objetivo la promoción del modelo de turismo responsable. Además del potencial que ofrece el valle Leitzaran, la intención es habilitar la "Bisitarien Etxea" de Otietia como punto de información, alquiler de bicicletas, W.C....

Asimismo, seguiremos ahondando en la red de bidegorris y adcentaremos espacios para las caravanas-autocaravanas.

JUVENTUD

Desarrollaremos el Plan que acaba de aprobar el



Andoaino Udala

egingo dugu, gazteekin batera. Gazte adin tarte guztietara heltzea izango da asmoa, beraz, horietako bakoitzaren inguruko azterketa egingo dugu. Era berean, agintaldi honetan egin bezala, hainbat errekurso eta bitarteko jarriko dira euren eskura, partaidetzaren bitartez, zertara bideratu nahi dituzten erabaki dezaten.

HIRIGINTZA

Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren azterketarekin jarraituko dugu, ikusten ditugun gabeziak konponbidean jarriz. Halaber, hauexek dira lehentasunez egitea ikusten ditugun inbertsioak:

- Segurtasun neurriak Bertxin zentrolean
- Udal etxebizitzaren konponketa
- Udal eraikinen konponketak
- Herri bideak
- Doctor Huizi, Olagain eta Joakin Larreta kaleetako hormen konponketa.
- Algodonera garajeak
- Etxeberrietako garapen urbanistikoa
- Papelera eta Celulosas: Plan berezia egin. Erabilaren definizioa
- Andoaino etxe hutsen azterketa (egoera, zergatik ez diren alokatzen ezagutu) eta merkaturatzeko bideak sustatu.
- Andoainen gune estalian beharra dagoenez, nola eman daitekeen aztertu eta egon daitezken aukerak bideratu.
- Udal Liburutegia
- Arrate frontoiaren egokitzapena
- Kiroldegia: legionellaren kontrako egokitzapenak zein bestelako mantenu lanak.
- Dr. Huizi kaleko eskailerak

LANGILERIA

Udaleko Lanpostuen Zerrenda berraztertzen jarraitu eta aldaketak proposatu behar ditugu, beti ere, Udalaren zerbitzua egokiena izan dadin. Lan errekursoak modurik egokienean amortizatu behar ditugu.

Lan Arriskuen Prebentzioari dagokionez, azken lan urteetako bidearekin jarraituko dugu, ahal den neurrian, bertatik sortutako auziei bizkortasuna emanaz.

ayuntamiento, junto a los y las jóvenes. La intención es llegar a todos los segmentos de la juventud, y para ello, analizaremos cada uno de esos segmentos. A su vez, al igual que hemos hechos en el pasado mandato, se pondrán disposición de la juventud varios recursos y medios, para que mediante la participación, decidan a que destino dirigirlos.

URBANISMO

Continuaremos con el estudio del Plan General de Ordenación Urbana, redirigiendo los puntos conflictivos. Además, estas serán las inversiones que creemos se deben asumir con prioridad:

- Medidas de Seguridad en la Central Bertxin.
- Arreglo de las viviendas municipales.
- Arreglo de edificios municipales.
- Caminos vecinales
- Arreglo de los muros de Doctor Huizi, Olagain y Joakin Larreta.
- Garajes de la zona de la Algodonera
- Plan urbanístico de Etxeberrieta.
- Papelera y Celulosas: Realización del Plan Especial. Definición de la utilización.
- Análisis de las viviendas vacías (situación, conocer el motivo por el que no se alquilan) y promover vías para lanzarlas al mercado.
- Teniendo en cuenta que en Andoain existe la necesidad de lugares cubiertos, analizar la posibilidad de establecer uno de ellos.
- Biblioteca municipal.
- Adecuación del Frontón Arrate.
- Polideportivo: adecuación contra la legionella y varios trabajos de mantenimiento.
- Escaleras de la calle Dr Huizi.

PERSONAL

Continuaremos analizando la Relación de Puestos de Trabajo del ayuntamiento y proponiendo cambios, siempre para que el servicio del ayuntamiento sea el más adecuado.

Debemos amortizar los recursos de la manera más correcta. En cuanto a la Prevención de Riesgos Laborales, seguiremos con el camino emprendido hace cuatro años, en la medida de lo posible, dándole agilidad a los temas que surjan.



Andoingo Udala

ZERBITZUAK

Uneoro dauden beharrak detektatzeko sistema arina eta gertukoa edukitzea ezinbestekoa da; gure barneko dinamikak eta lan moldeak fintzen jarraitu behar dugu eta herritarrekin kontaktua erraztuko duen komunikazio bitartekoak garatu.

Urarenaz gain, argiteriaren problematikari helduko diogu lau urte hauetan. Udal eraikinen eta kale argiteriaren plan energetikoa martxan jarri behar dugu, besteak beste, kaleko argiteria sistema LED sistemara pasaz, %74ko aurrezpena lortzeko.

Gure kaleetako garbiketak ere berrazterketa bat beharrezkoa du. Kale garbiketa zerbitzu osoa Udaletik kudeatzea da gure nahia, zerbitzuaren kalitatea emateaz gain, honen gaineko kontrol zorrotzagoa egitea ahalbidetzen duelako eta dirua aurrezten delako.

Lorezaintza: ordenantzaren eguneratzea eta zerbitzuaren hobekuntza.

EUSKARA

2011 urtean onartu zen (ESEP) EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN garapena izango da ardatza. Dena den, 2017an II. ESEP onartu beharko da, eta beraz, gaurdanik hasiko gara plana lantzen.

Helduen Euskalduntze eta Alfabetatzea.

Euskararen ezagutza eta erabilera orokortu dadin izango da helburu nagusietako bat. Herritarrak euskara ikastera gerturatu daitezten, sektore ezberdinetara ailegatzeko kanpainak eta egitasmoak jarriko ditugu martxan: gurasoak eta haurren zaintzaileak, dendariak...

Doakotasunerantz urratsak. Euskara jakitea eta ikastea eskubide bat dela uste dugu, beraz, doakotasuna helburu izanik, diru laguntzen ordenantzan aldaketak proposatuko ditugu. Nola ez, lankidetzaren bidea jorratuko dugu herriko euskaltegiarekin.

Familia transmisioa. Euskararen iraupenerako ildo garrantzitsuenetakoa da familiaren hizkuntza transmisioa; kalean, eskolan... ez ezik, berebizikoa

SERVICIOS

Es imprescindible tener un sistema ágil y cercano para detectar las necesidades que existan en todo momento. Tenemos que perfeccionar nuestras dinámicas internas y nuestro modo de trabajar, y desarrollar los medios comunicativos para facilitar el contacto con los y las andoaindarras.

Además del tema de agua, en estos cuatro años atenderemos la problemática de la luminaria. Pondremos en marcha el Plan energético de los edificios municipales y de las calles, entre otros, pasando del sistema actual al sistema LED, obteniendo un ahorro del 74%.

La limpieza de nuestras calles también necesita ser reanalizado. Nuestro deseo es que todo el servicio de limpieza viaria pase a ser municipal, que además de darle calidad al servicio, posibilita realizar un control más exhaustivo sobre el servicio y permite ahorrarnos dinero.

Jardinería: actualización de la ordenanza y mejora del servicio.

EUSKERA

El eje será el PLAN DE ACCIÓN DE PROMOCIÓN DEL EUSKERA que se aprobó en 2011. No obstante, para 2017 deberemos aprobar el IIº PAPE, por lo tanto, comenzaremos a trabajar desde hoy en su elaboración.

Euskaldunización y alfabetización de Adultos/as.

Uno de los objetivos principales será extender el conocimiento del euskera y su utilización. Para que la ciudadanía se acerque a aprender euskera, pondremos en marcha campañas y proyectos para poder llegar a diferentes sectores: madres y padres, ciudadanos/as de niños/as, comerciantes...

Pasos hacia la gratitud. Creemos que saber y aprender euskera es un derecho, por lo tanto, teniendo como objetivo la gratitud, propondremos cambios en la ordenanza de subvenciones. Como no, trabajaremos conjuntamente con el euskaltegi del municipio.

Trasmisión familiar. La trasmisión familiar es una de las líneas más importantes en la conservación del euskera; además de en la calle, en la escuela...



Andoaingo Udala

da etxean normaltasunez darabilgun hizkuntza. Horregatik, atentzio berezia jarriko dugu guraso, aiton-amon, haurren zaintzaileen.... euskararen ezagupenean, baliabideak eskainiz euskara gerturatu daitezten.

Euskara kalean. Jakin badakigu euskararen egoera gure kaleetan ez dela behar-besteko indartsua, eta eremu guztietatik lan egin behar dugu euskararen presentzia areagotu dadin. Herriko elkarte eta gizarte kolektiboek elkarlanaren bidea proposatuko diegu bakoitzak bere eremutik ahal duen gutzia eskaini dezan.

Arnasguneak identifikatu eta hauen balioa indartu. Herrian baditugu euskara bolo-bolo diharduten guneak, euskara osasuntsu eta indartsu aurkitzen den eremuak. Bada, eremu eta gune hauei oraindik eta hauspo gehiago ematea izango da gure xedea, hemendik abiatuta, akuilu gisan, euskara beste eremuetara barreiatzeko.

INGURUMENA

Hondakinen kudeaketa. Edukiontzia marroia edo bosgarren edukiontzia martxan jartzeko prozesua abiatuko dugu. Era berean, Hondakinen Mahaiari jarraipena emango diogu, neurri berriak adostu ahal izateko.

Energia eraginkorraren proiektuen bitartez CO2ren isuriaren murrizketa. Europako Alkateen ituna errespetatzeari begira, 2020.urterako %20a gutxitu behar ditugu CO2 emisioak. Horretarako ekintza plana adostu behar dugu, Udal eraikinetan, merkataritzan, etxebizitzetan... neurriak hartuz.

Aire eta Zarataren Kutsaduraren neurketak eta mapa osatu. Agenda 21ren lerro estrategikoaren garapenarekin jarraitu. Plenoan onartutako 2012-20 planaren exekuzioarekin jarraitu behar dugu.

Irisgarritasun eta mugikortasunaren II. Fasea garatu. Batik bat, lau lan lerroen garapenean zentratuko dena: Irisgarritasuna, Bidegorrien sarea, Hiribusaren zerbitzuaren hobekuntzak eta Zebra bide seguruak.

es extraordinario el idioma que utilizamos con normalidad en casa. Por ello, pondremos especial atención en el conocimiento del euskera de madres y padres, abuelas y abuelos, ciudadanos/as de niños/as..., ofreciendo medios para que se acerquen al idioma.

Euskera en la calle. Sabemos que la situación del euskera en nuestras calles no es demasiado fuerte, y debemos trabajar en todos los ámbitos para acentuar esa presencia. Propondremos a las asociaciones y colectivos sociales el camino de la colaboración para que cada uno pueda aportar lo máximo posible desde su ámbito.

Identificar los “arnasguneak” (zonas euskaldunes) y fortalecer su valor. En Andoain tenemos espacios donde el euskera está fuerte, donde el euskera es saludable. Nuestro objetivo será darle al euskera más impulso en estos espacios, para que partiendo de estos puntos, extendamos el euskera a otros ámbitos.

MEDIO AMBIENTE

Gestión de residuos. Pondremos en marcha el proceso de instalación del contenedor marrón o quinto contenedor. A su vez, daremos continuidad a la Mesa de Residuos para seguir adoptando medidas.

Reducción de los vertidos CO2 mediante proyectos de energía renovable. Con el objetivo de respetar el Pacto de Alcaldes de Europa, para el año 2020 debemos reducir las emisiones en un 20%. Debemos acordar un plan de acción para ello, tomando medidas en los edificios municipales, comercio, viviendas...

Crear el mapa y realizar mediciones sobre la contaminación del Aire y el Ruido. Continuar desarrollando las líneas estratégicas de la Agenda 21. Debemos continuar con la ejecución del plan 2012-20 aprobado en el pleno.

Desarrollar la IIª fase de Accesibilidad y Movilidad. Sobre todo, se centrará en cuatro ejes: Accesibilidad, red de bidegorris, mejoras en el servicio del Hiribus y pasos de cebra seguros.



Andoaingo Udala

Biodibertsitatea. Andoaingo biodibertsitateran diagnosa egin nahi dugu, lehenik eta behin. Horrekin batera, Klima aldaketaren aurkako aktuzio plana adostea da asmoa. Halaber, landare inbaditzaileen aurkako neurriak jarriko ditugu mahai-gaanean, baita mendi publikoen kudeaketarako proposamena zein ibai ertzeen berreskurapenerako egitasmoa ere.

KIROLA

Kirolaren praktika Andoaingo norbanako bakoitzera ailegatzea izan behar du helburua, herrikide osasuntsuak izatea baita gure nahia. Beraz, arlo honen eginkizun nagusia kirol aukerak herritar guztien eskura jartzea izango da.

Kirol elkarteekin hartu-eman zuzena izaten segitu nahi dugu, baina baita ariketa fisiko ez lehiakorra hedatu ere. Adin guztietako emakumeen parte hartzea handitu nahi dugu; andoaindar ume eta gazteengan ariketa fisikoa eta kirola ohitura osasuntsuak finkatzeko eskola kirola tresna inportantea izan dadin, era positiboan bizitzeko baliabideak jarri; Kirol taldeetan eta eskola kirolean euskararen erabilera normalizazioaren bidean jarri; adinduetan ariketa fisikoa sustatu kalean zein eremu itxietan.

HAURREN HIRIA

Haurren Hiria proiektu tranbertsala da, departamentu ezberdinak hartzen dituen eta legealdi osoan zehar elkarlanean garatzen joan nahi duguna. Herritarren parte hartzea ezinbestekoa duen proiektua da honokoa.

PARTE-HARTZEA ETA KOMUNIKAZIOA

Herritarren parte-hartzea sustatu nahi dugu. Norbanakoak sektore zehatzetan egiten duenaz harago, erabaki zehatzetan eta estrategikoetan herritarren iritzia jakiteko bideak irekiko ditugu. Baita ere, erabaki prozesuak antolatu beharrezkoa ikusten denean.

– Andoaingo Partaidetza Ordenantza osatu. Erabakiak hartzeko momentuan partaidetza nola gauzatuko dugun zehaztea izango da honen

Biodiversidad. Queremos realizar un diagnóstico de la biodiversidad de Andoaín. A su vez, la intención es acordar un plan de acción contra el cambio climático. También pondremos sobre la mesa medidas en contra de las plantas invasoras, así como una propuesta para la gestión de los montes públicos y la recuperación del margen de los ríos.

DEPORTE

El objetivo es que la práctica del deporte llegue a cada ciudadano/a de Andoaín, ya que nuestro deseo es convivir con vecinos/as saludables. Por lo tanto, el quehacer principal de esta área será poner a disposición de todos y todas opciones para practicar deporte.

Seguiremos teniendo un contacto directo con los clubs deportivos, así como extender el ejercicio físico no competitivo. Queremos ampliar la participación de las mujeres; a su vez, para que la Escuela Kirola sea un instrumento importante para que niños-as y jóvenes practiquen ejercicio físico y costumbres saludables, pondremos medios para que lo vivan de modo positivo. También con las personas de más edad. Queremos poner el euskera en camino de la normalización en los clubs deportivos.

HAURREN HIRIA

El proyecto Haurren Hiria es transversal, que involucra a varios departamentos y queremos trabajar durante todo el mandato mediante el trabajo en común. La participación ciudadana es muy importante en esta área.

PARTICIPACIÓN Y COMUNICACIÓN

Queremos promover la participación ciudadana. A parte del trabajo que se realiza en cada ámbito, abriremos canales para conocer la opinión de la ciudadanía en decisiones concretas y estratégicas. Organizaremos procesos decisivos cuando se considere necesario. Daremos continuidad al proceso participativo “Parte hartze hariak lotuz”.

– Crear la Ordenanza de Participación de Andoaín. Su objetivo será determinar como se materializará la participación en el momento de



Andoingo Udala

helburua.

- "Parte hartze hariak lotuz" urteroko prozesuei jarraipena eman.
- Udalaren WEB orria: Orri hau eguneratu. Zerbitzu publikoa izan dadin norabide horretan jarri bere diseinua eta edukiak.
- Entzun: alkatea eta zinegotzi delegatuek herritar edo elkarte orok aurrez zita eskatuta bilera emango zaie ahalik eta eperik laburrenean.
- Udalaren marka berria eratu. Udalaren funtzioei eta programari lotuta eta egiten diren ekimenen berri emateko erabilia izango dena.

***Oharra:** Hemen aurkezten diren lerroak, aipagarrienak dira. Departamentu bakoitzak, zeregin eta plan gehiago ditu.

adoptar decisiones.

- Dar seguimiento al proceso anual "Parte hartze hariak lotuz – Barrio por barrio".
- Página WEB del ayuntamiento: actualizaremos esta página. Encaminaremos el diseño y los contenidos para que sea un servicio público.
- Entzun: la alcaldesa y concejales/as darán cita para reunirse en la mayor brevedad posible con los ciudadanos-as y asociaciones que así lo requieran.
- Creación de la nueva marca del ayuntamiento. Estará unida a las funciones y programa del ayuntamiento y se utilizará para dar a conocer las actividades.

***Nota:** Las líneas que aquí se presentan son las más significativas. Cada departamento incluye más planes y quehaceres.

Andoainen, 2015eko ekainean.

Andoain, junio de 2015.